

**LemoaHarrobi
Lurraldekoa
Bigarrenetik
Lehenengo
mailara igon da**
11. orrialdea

Regueibertso, bat-bateko literaturearen gaineko topaketak

Euskal Herrian bertsoak eta Galizan regueifa, bat-bateko literatureak bizirik darrai. Arratiako Institutuko ikasleak eta Galizakoak alkartrukeak egiten ditue literatura honen gainean. Maiatzaren 1etik 4ra arratiarrak Galizan egon ziran, eta 17tik 19ra galizarrak egongo dira gurean. 13. orrialdea



**Alice Maria
Arzuffi italiarrak
irabazi dau
Emakumeen I.
Klasikoa**
11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

296

2018ko maiatzaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

UEMA Eguna egingo dabe Diman maiatzaren 26an



Euskara gure lurra lema-pean, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), Batzar Nagusia eta ekitaldi instituzionala egingo dauz Diman. Batzar horretan Arantzazu eta Bakioren UEMAn sartzeako eskaerak onartuko dira. Honekaz 87 udal izango dira UEMAKo herriak.

Euskerearen egoeraren gaineko mintegiak egingo ditue eta egunari jai giroa emoteko, kontzertuak, bertsoak, kalejirak eta herri kirolak ez dira faltauko bi eguneko egitarauaren barruan.

Abestia eta bideoklipa be egin dabe dimoztarrak UEMA Egunaren harira, *Euskara gure lurra* izenpean. 9. orrialdea

Musik & Beer Areatzan, nazinoarteko jaialdia

Garagardo eta musikearen jai, bagilaren 1 eta 2an izango da. The Old Timey String Band, A Contra Blues, The Buttshakers, Priscilla Band, Anaut, Confluence eta Laurence Jones izango dira musikea ipiniko daben taldeak. Garagardoari jagokonean, Basqueland Brewing Project-ek ekoiztutako garagardoak dastatu ahal izango dira. 8. orrialdea



ARRATIA

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako topaketa

Maiatzaren 26an, 10:00etatik 13:00etara, Lemoako Jubiladuen tabernaren gaineko aretoan, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako 2017-2018 ikasturtearen balantzea egin eta datorren ikasturteari begirako programazinoa landuten hasiko dira parte hartu gura daben andrak. Virginia Imaz pailazoak jasoko dau bertan gertatutakoa bere "clownklusinoakaz".

Maiatzaren 17an, Lesbofobia, Homofobia eta Transfobiaren kontrako egunaren harira, AUMk eta Aldartek argazki erakusketea antolatu dabe Arantzazuko udaletxean maiatzaren 24tik 28ra. Bertan, Erkidegoan, estatu espainiarrean eta Erdialdeko Amerikan eta Mexikon, sexu orientazio edo genero identitateagaitiko gorroto delituen egoera erakutsiko da. 6. orrialdea

DIMA

Jentilak Diman mitologia astea

Maiatzaren 14tik 19ra *Jentilak Diman* mitologia astea antolatu dabe Txumulueta alkarteak eta Udalak. Asteaz zehar hainbat ekintza egongo dira herritarrei inguru honetako mitologia ezetuten emoteko. Holan, Ines Bengoa ipuin kontalaria eta Juan Manuel Etxebarria, *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak* liburuaren egilearen berbaldia egongo dira. Barikuan, "jentilak agertuko dira plaza inguruan" eta zapatuan dimoztarrak sortutako *Sugoi* antzezlanaren antzeztuko dabe pelotalekuan. 5. orrialdea



IGORRE

Partaidetzea %27,56koa izan zan maiatzaren 6ko herri galdeketan

Igorretarrak euskal estatus politikoaren euren eretxia emoteko aukerea izan eben maiatzaren 6an. Gure Esku Dagoko Igorren Ebatziz deituta, 3.553 lagunek emon eikien botoa eta 983 boto jaso ziran. "Euskal estatu bateko herritarra izan gure dozu?" itaunari 962 herritarrek baietz erantzuko eutsien, 9k ezetz, 10ek boto zuria emon eben eta baliobako boto bi egon ziran. 7. orrialdea

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ARRATIA KOLOREETAN

GANZABAL MENDI TALDEA

Ganzabal Mendi Taldea 1973an Lemoako Korralaren mobimentuaren inguruan sortu zan taldea da. Ganzabaleko lokala Lemoan kokatzen dan arren, ondoko herrietako bazkideak batzean dituan mendi taldea da: Arratiako beste herriak, Galdakao, Zornotza, Durango, Bilbo...

Aurten Ganzabal Mendi Taldeak 45 urte bete ditu eta 700 bazkide inguru gara, Bizkaiko eta Euskal Mendizale Federazioaren barruan gagoz, 265 federadugaz.

Urtean 50 ekintza inguru antolatzen doguz, inguruko mendietara egun osoko eta erdiko urtekerak, umeen urtekerak, zugatz eta turroi eguna, Pirineoetara, Picosetara

eta Espainako mendietara egun osoko edo hainbat egunetako urtekerak, Mendi Amesgarriak (Mendi Tour) ikus-entzunezkoak, filmak, ikastaroak, erakusketak, lehiaketak, astegoen mikologikoa, bazkideen proiektzioak eta aurten hirugarren aldiz, Lemoan, Lemoatx Trail arraskata izugarria euki dauan mendi martxea eta lasterketea, zemendiaren 18rako antolatu doguna. Arratia-Otxandio-Ubideko Mendizale eguneko sortzaile eta bultzatzaileetakoak izan ginan oin dala 19 urte eta urri bigarrenaren 28an ospatuko dogu.

Maiatzaren 31n, Igorreko Lasarte aretoan, doban, arrastiko 19:30ean Kilian Jorneten *Path to Everest* fil-



ma eskeiniko dogu.

Ganzabal Mendi Taldeko informazioa gura izan ezkerro hurrengo leku honeetan aurkitu leike:

www.ganzabalmnt.org
<https://es-es.facebook.com/GanzabalMendiTaldea>
<https://www.facebook.com/LemoatxTrail/>

Eta gure helbide elektronikoa ganzabalmnt@ganzabalmnt.org da.

Ganzabal Mendi Taldea



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakako Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Maiatzaren 14tik 20ra

Rodriguez Martinez, Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 21etik 27ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 28tik bagilaren 3ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Illart Gumuzio.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar heritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Ekandu / Ekandu(a) hartu



Ohitura esateko ekandu berbea be erabilten dogu (ekandúe, agoskatuta). Batuaz, usadio da eta tradizioetan oinarrituta, belaunaldiz belaunaldi gorde diran uso-kostunbreak, baita gaur eguneko ekanduak adierazoteko be balio dau berba honek, esate baterako: "Lehengo baten gure amak zera esan eutsan auzoko gazte bateri: albokoaren gauza txarrak kontetan beti! Ez hartu holongo ekandurik, e!".

ERETXIA

Emagune: Bakearen eta alkarbizitzaren inguruan andron gogoeta batzuk

Emagune ehuGuneren barruan sortutako ekimen bat da. EhuGune EHUren eta gizartearen arteko topaleku bat da, estrategikotzat edo lehentasunezkatzat jotzen diran gai sozial, kultural, ekonomiko eta politikoez eztabaidatzeko. Gai horreetako bat bakea eta alkarbizitza da. 2014ko maiatzean ehuGunek proposatu eban ikusmolde desbardinatuko andren topaleku eta gogoetagine bat zabalduetea, androk geure ekarpenak egiteko ETAK armak itxi ondoren euskal gizartean sortutako egoera barriaren inguruan. Holan sortu zan Emagune. 2016ko urri lehenengoaren 30ean, Emaguneko androk izandako hausnarketearen ondorioak jasoten ebazan dokumentua aurkeztu genduan Bilbon. Hurrengo lerrootan jasoten dana dokumentu horren zati bat da¹, ETArek desagerpenaren aurrean zintzilik dagoan bakegintza eta andron partaidetzearen gaineko eztabaideari helduteko ekarpena dalakoan.

Andren parte hartze aitortuago eta parekatuago baterantza, bakea poderearen banaketeagaz.

Androk "euskal gatazka"ren eta haren konponbidearen parte gara, baina ikusezina bihurtu da gure rola, bigarren mailakotzat jo da, ez da parekatotzat hartu, ez da aitortua izan eta batzuetan gainbegiratua be izan da. Izan be, gatazkaren bizipena bera be genero harremanak zeharkatu dabe. Horregaitik, euskal andren parte hartze soziopolitikoak lotura zuzena dauka gure gizartean dagoan poderearen banaketea eta erabilereagaz, eta horrek aparteko azterketea eskatzen dau.

Euskal gizartean poderearen ikuspegi estu bat da nagusi, oso

IRANTZU MENDIA AZKUE

Emagune

lotua arlo politiko-instituzionalari, zeina gehienbat maskulinoa eta maskulinizaua dan bere antolaera eta adieraz moldeetan, eta zeinetan andron presentzia eta gure aldarrikapen kolektiboen ordezkaritza txikiagoa dan. Andrak oztopo ugari aurkitzen ditue euskal politikagintzan, eta euren kabuz ekimenak liderau gura izan dituean gizonak hareek gitxiesten saiatu dira, are deuseztatzen be. Izan be, alkartasun maskulinoa eta "gizonen arteko itunak" sigla eta ideologia politikoen gainetik dagoz, eta genero estereotipoak indar handia daukie oindino be euskal jokaleku politikoan.

Aldiz, bai lehen eta bai oin, bakegintza eta alkarbizitza bidezko konponbidearen alde diharduen herritar soilen alkar-te, plataforma eta ekimenetan andrak dira gehiengoak, nahiz eta horrek ez dauan ekarri horreek protagonismo handiagoa izatea gatazkeagaz zerikusia daukien lidergo espazioetan eta erabakiguneetan. Hau da, errazago airtortzen eta sustatzen da andren rola alkarbizitzako espazioetako gizarte-hezitzaile eta bideratzaile legez, ezen ez subjektu politiko legez guk geuk ezarritako baldintzetan.

Poderearen banaketa desorekatua ez da mugatzen erakundeetara eta gobernu erabakietara. Euskal andrentzat gizartearen antolamendu patriarkalaren eta mendetasunaren aurkako burrukea —andren mendetasun hori eleizako hierarkiak, besteak beste, historikoki defendidu dau— arlo guztietan jokatzen da eta oso latza da oindino be, gure gorpuztean eta gure bizitzan ezarten deuskuezan baldintza pisutsuak dirala eta: bildurrak, familiari eta zaintzari lotutako rola, amatasunari emoten jakon garrantzia sexu eta ugalketa eskubideai emon beharrean, sexualidade itxia eta kontrolaua derrigorrezko eredu heterosexualak baldintzatu, bazterketa lan merkaduan edo laneratze prekarizaua eta ezparekoa, eta gainontzeko indarkeria matxistak.

Horreek guztiak bakearentzako eta alkarbizitzarako mehatxuak dira, andrai askoz gogorrago erasotzen deusestenak eta beste mehatxu guztiai bezain irmo erantzun behar jakienak. Euskal Herrian bakea eta alkarbizitza finkatzeko, beharrezkoa da demokrazian sakontzea, eta horrek poderearen banaketa bidezkoa eskatzen dau, bai arlo politiko-instituzionalean eta bai sozialean.

Emagunegaz harremanetan ipinteko: emagune.ehugune@ehu.eus.

Dokumentu osoa eskuragarri hemen: <https://www.ehu.eus/eu/web/ehugune/emagune>

LUMATUTEN

JOSE MARI
KORTAZARTxalo bero bat
Lemoako Udalarari

Lemoatik paseatuz Udalak sustatu dauan "Lemoa denona eta denontzat" kanpainaren kartelak ikusi daz. Zorionak eta txalo bero bat. Ebaluetan dabenean ikusiko dogu bere eraginkortasuna. Baina sikan ahalegina egin dabe.

Txakur jaubeak kontuan hartzeak, etxeko altzari zaharrak batzea, herri altzariak jagotea gureak balira lez, paperontziak erabiltea...

Ekimen hau Arratia osoan zabaltzea gauza ona litzateke. Eskola eta institutuan, adibidez, Euskerearen Eguna edota Arbolaren Eguna ospatzen doguzan antzera, Sastar-ontziaren Eguna be ospatu daiteke. Kirol arloan, jaurtiketa probak: bokadillo zatiak zelan saskiratu sastar-ontzian. Zientzia arloan, ariketa praktikoen bitartez, ikusi paper bat sastar-ontzian jartzerakoan ez dauala kalanbrerik emoten.

Matematika arloan, zenbat pipa azal geratzen diran terrazen mahai inguruan, paperontzitik metro erdira. Gurasoak botatakoak badira, puntu bi gehiago, jakina! Eta filosofian, adibidez, gizakia animaliakaz bereizteko gauza bat argitzea: zein da garbiagoa? Etxean botaten ez doguna zergaitik bota behar dogu kalean, sastar-ontzitik metro batera?

Kanpaina hau Udalen Mankomunitateari azaltzea eta zabaltzea be gauza egokia litzateke. Holan, Lemoan hasi dana Arratiako beste herri guztietan be landu daiteke. Eta BEGITU be batu leike kanpaina honen alde.

Sugerentzia moduan, hormetan eskegiten diran kartelak be aitatu beharko litzateke, bardin da hileta eskela izan edota propaganda politikoa. Kartela jarri dauanak berak kendu dagiala ekintzaren eguna igaro eta gero. Pankarta bat jarri dauanak, zazpigarren egunean (edo ebazten dan egunean) kendu dagiala, hurrengo haizeteak kendu eta apurtu baino lehen. Eta pintadea bada, egin dauanak berak ezabatu dagiala.

Arratia garbia, danontzat hobea! Zorionak benetan Lemoako Udalarari! Eta txalo pilo bat.

Ea idea zabaltzen dan! Zabaltzen dogun! Danon onerako!

ZERTZEAN



ARITZ ZUBIATE

Igorrez harro

Egun handia izan zan maiatzaren 6a Igorren. Erabakitze aukera eukin genduan igorrez-tarrok. Estatu propioaren ingurukoa zan galdera, baina erabakia izan zan aurrekoan praktikara eroan gendua. Eta behin erabakitzen hasita, etorkizunaz, bizitza hobea izateko aukeraz erabakitzea etorten jaku burura.

Berba indartsua da "erabaki", esangura sakonekoa, burujabetza ariketa oinarritzkoa. Eta guk, gauza danetaz erabaki gura dogu, etorkizuna eskutan hartu eta edozein lango menpekotasunetik askatu. Pentsinoen inguruan erabaki, gure herriak behar dauzen medikuek, eskolatan egon behar dan ratioaz, enpresarien inpunitatea murriztuko daben neurriez, matxismoa atzean ixteko politika feministak martxan ipintez, bizitza eta zaintza erdigunean ipintez, kapitalen diktadurak askatuz...

Alkarte sortu barri batek emon deusku igorrez-

tarroi erabakitze aukera, "Igorren ebatzi" izan da bide emon deuskuna. Antolatutako pertsonak, helburu baten alde ilusinoagaz beharren. Kultur Etxeko hall-eko eskaileretan ateratako argazkiagaz taldea aurkeztu ebenetik, luzea izan da maiatzaren 6ra arte egindako ekimenen zerrenda: erabakiaren aldeko Santagedako koplak, galdeketa bultzatzeko jasotako ehundaka sinadurak, tonbola, galdera erabakitze prozesua, atzo eta gaurko udal ordezkariak aurkeztutako adierazpena... eta azkenean, galdeketa eguna, giro itzelean joan zana.

Bide bat erakutsi deusku "Igorren ebatzi"-k, eta egiteko modu bat, parte-hartzea eta horizontaltasuna erabilita, prozesuari garrantzia emonez, ez-bardinak alkartu eta proiektu amankomun batean lan eginda. Gauza handiak lortu arte. Itzela izan da, Igorrez harro egoteko modukoa.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topaguea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Badira sinpatikoak diran seinaleak, sano jatorrak, laguntzen deusuen horreek batez be. Baina, modu berean, badira, zelan esan... aldrebesak? Aldakorrak? Alkatxofea? Al Qaeda?... alkon-darieeee!!! Neuk behintzat, ordu erdi emon dot argazkiko seinaleari begira. Etxean aspiragailua pasa neikean, baina, ez, seinaleari begira lotu naz bere sakoneko mezua aditu guran. Kontua da, hasieran "Balo bako gunea" baino ez ebala adierazoten, eta nik, Humberto Ecoren jarraitzailea izan arren, ez dot piperrik be ulertu. Bueno, bai, dinoana bai, badagoala txoko bat baloirik ez daukana, beraz, ni inozo, hasi naz kontrako seinalea buru belarri topetan, hau da "Baloidun gunea". Jakina, baloi hori, herrikoia antza, ez dot inon topau, hasierakoa argitzen eban mezu osoa baino: "Ez olgau baloiagaz". Tira, bai bitxia seinale dontsua, "bako" ganean prezintoa eta guzti ipinita, bai aldakorra, eta hori Zeanuriko umeak batzean diran etxearen aurrean. Hori da akaso mezua? Galazota dagoala baloian jotzea? Klaro, umeen berezko izaera anarko-kaotikoa arteztu behar. Eta umeak ostruka erraldoi bategaz olgauko balebe, zer? "Ostruka bako gunea" ikusiko geunke?

Alvaro Rabelli



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarroa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Blokaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulari 101
R.P.S. 21/06

www.iteka.com

- Berezi gaitzara
- Laguntza psikologikoa
- Logopedia
- Fisioterapia
- Psikomusikoterapia
- Laneri erantzukizun
- eta aldez gehiago

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

DIMA

Mitologia astea *Sugoi* ikuskizunagaz zarratuko da

Igaztik *Jentilak Diman* ekimenak aste osoa hartzean dau, mitologia era desbardinetan azaldu ahal izateko. Herrian sortutako eta herritarrek antzetzutako *Sugoi* antzezpeneak zarratuko dau mitologiagaz lotutako ekintzaz betetako maiatzaren 14tik 19rako astea. Aurten, inoz baino bisualagoa eta erakargarriagoa izango dala dino Gotzon Aurrekoetxea antolakuntzakoak.

Erredakzioa

Umeak partaidetza zuzena izango dabe mitologia aste honetan. Eskolan, maila guztietako ikasleakaz mitologiaren gaineko ekintzak egingo ditue, jolasak batez be, aste osoan zehar. Eguaztenean, hilak 16, 18:00etan, Ines Bengoa ipuin kontalaria sorgin eta monstroen gaineko ipuinak kontauko ditu eta ondoren sari banaketea egongo da. Izan be, mitologiari lotutako lehiaketa bi egin ditue herrian. Batean, 8 eta 11 urte bitarteko umeak hartu dabe parte bolumenezko irudiak egin. Edozein material erabili eitekean, iraunkorra ala ez, taldeka edo bakarka eta "pilot bat lan aurkeztu dira" Gotzon Aurrekoetxea antolakuntzakoaren arabera. Hamabi urtetik gorakoak Ipuin Lehiaketan hartu dabe parte.

Beste ikuspegi batetik helduko deusie gaiari nagusiak. Izan be, Jubiladuen alkarteak antolatuta Juan Manuel Etxebarriaren berbaldia egongo da, arrastiko 19:00etan, Jubiladuen lokalean. Etxebarriak Arratiako ipuin mitologikoen gainean egingo dau berba, eta kontau be egingo ditu publikoarentzat ezagunak diran hainbat

Hurrengo egunean, jentilen agerera egongo da. Jentilak plazan agertuko dira eta poteoa egingo dabe herrian "talde desbardinak, batzuk mozorro-tuta eta beste batzuk mozorroto barik, beste batzuk baseritar jantzita".

Sugoi ikuskizuna

Zapatuan, maiatzaren 19an, izango da ekintza zentrala, Sugoi ipuin mitologikoen antzezpene. Herriko jantza taldeak jantza bi egingo ditu, musikari batzuk be parte hartuko dabe, koruak be hartzean dau parte ipuinean. Izan be, herriko alkarte eta norbanako askoren lanari esker egingo da ikuskizuna. "Dana egin da Diman eta dana egin dabe dimoztarrek. Gure ezaugarri bat da. Herriak sortu, herriak egin. Eta gauza dotore, kalidadezkoa, polita eta erakargarria" dino Aurrekoetxeak.

Aurtengo ikuskizuna aurreko urteetako baino luzeagoa da eta XIX. gizaldian kokatu dabe ipuina. Sugoiren agerera desbardinak erakutsiko dira. Pelotalekuan izango da 22:00etan, baina aurretik kalejireia egingo dabe parte hartzaile guztiak.

Jentilak Diman Txumuluixuetan alkarteak eta Dimako Udalak

antolatuten dabe herriko hainbat alkarteren laguntzeagaz. Gainera, taberna, denda eta abarrek babesa emoten deusie "sano garrantzitsua da guretzat, ez bakarrik arlo ekonomikoan, baita animikoan be. Eurak barik askoz gaxagoa izango litzateke" dino Gotzon Aurrekoetxea Txumuluixuetan alkarteoak.

Egitaraua

Maiatzak 16, eguaztena

17:30etik aurrera, lehiaketetara aurkeztutako lanen erakusketea.

18:00etan, Ines Bengoa ipuin kontalaria, *Sorginak eta monstroak* eskolako kamaran. Ondoren lehiaketetako sari banaketea.

Maiatzak 17, eguena

19:00etan, Juan Manuel Etxebarriaren berbaldia *Arratiako ipuin mitologikoak*. Jubiladuenean.

Maiatzak 18, barikua

Iluntzean, jentilen agerrera plaza inguruan.

Maiatzak 19, zapatua

22:00etan, *Sugoi* ikuskizuna pelotalekuan.

ARRATIA

Arratiako enpresak alkar ezetuteko ekimena abiatuko dau enpresa foroak

Erredakzioa

Maiatzaren 4an Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegian Arratiako enpresa foroaren hirugarren saioa izan zan. Saioan, hurreratuak aholkularitza profesional baten laguntzeagaz, helburu eta ekintza konkretuak landu ebezan.

Egindako hausnarketaren ondorioz, Arratiako enpresen arteko ezagutza hobea izatea gura dabe foroko enpresak eta lehenengo pausua bagilaren 29an egingo dabe. Egun horretan, Ormazabal y Cian alkatuko dira, enpresea bisitatu eta bakotxaren praktika onak konpartiduteko.



Enpresetako kideak Zulaibarren.

LEMOA

Andren osasunaren aldeko Mila Herrikoia Lemoan

Erredakzioa

Maiatzaren 27an andren osasunaren aldeko eguna dala eta, Lemoako Udalak, osasuna eta kirola buztartuz, milia herrikoia antolatu dau. Lasterketaldia 12:00etan abiatuko da Karabie Gaztetxearen paretetik eta partaideak milia batek dituan 1.609 metroak egingo ditue galapan.

Edonork hartu daike parte; andrak zein gizonak; gazteak zein zaharrak; atletak, amateurak edo hain sasoi onean ez dagozanak. Izan be, helburua espazio publikoan kirola egitea eta ondo pasetea da, kirolak eta ondo paseteak bizi kalidadea hobetuten dabe-eta.

Osasun eskubidea

Bizitza osoan zehar osasuna izateko eskubidea, giza eskubidea da. Baina osasuna ez da biologikoa

bakarrik, faktore psikosozialak be eragin handia daukie eta andrak gizartean daukien lekua erabakigarria da euren osasunerako. Izan be, indarkeria matxistek, pobrezia eta baliabideen banaketaren desbardintasunak sano eragin kaltegarria daukie mundu zabaleko andren osasunean.

LEMOA

Kli-k txarangeak animauko dau Euskal Jaia

Erredakzioa

Bagilaren 2rako antolatu dau Euskal Jaia Jai Batzordeak Udalaren laguntzeagaz. Aurten, Iparraldeko Kli-k Txarangeak animauko dauz goizeko poteoa eta bazkaria.

Txarangeak euskal kanta tradizionalak joko dauz. Herritarren artean kantu liburuxkak bananduko dira txarangeagaz batera kantetako. Bazkariak sagardotegiko menua izango dau eta udaletxe aurrean izango da eguraldia ona bada eta eskoletako aterpean euria egin ezker. Arrastian, jokoak egongo dira.

Lemoako Euskal Jaiaren helburua, "euskal kultura edo tradiziozko baloreak mantentzen edo gogora arazotea" da Pablo Rodriguez Kultura Teknikariaren arabera.

LEMOA

Jolasak eta paellea Larrabeitin

Erredakzioa

Maiatzaren 26an auzuneko jaiak ospatuko dabaz Larrabeitin. Ohitureari jarraituz auzo bazkariak eta txapelketak izango ditue ardatz.

Goizeko 10:00etan, txupina bota eta 11:00etan, hamaiketako eta umeentzako jolasak egongo dira.

Tartean, arku tiroa, sokatirea eta lasterketak. Baita Igel jokoko Txapelketea ume zein nagusientzat. Auzo bazkaria 15:00etan izango da; hurreratzen diran guztientzako paellea. 17:00etan, zunba tailerra, 17:30ean, Mus eta Briska txapelketak eta jaiari amaierara emoteko, 19:00etan, merienda.

LEMOA

Iñigo Zuloaga izango da EAJ-PNVren alkategai

Erredakzioa

Iñigo Zuloaga López de Letona aho batez aukeratu eban maiatzaren 2an Lemoako Uri Buru Batzarrak 2019ko Udal Hauteskundeetarako EAJ-PNVren hautagai. Lemoako

alkatetza berreskuratzea izango da Zuloaga eta bere taldearen helburuetako bat.

"Gaztea, dinamikoa eta alkarrizketa zalea da, eta ondo ezetuten ditu Lemoan bizi diran herritarrak eta euren beharrak" dioe EAJ-PNVtik.

BEDIA

Liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartu da



2014ko Beldur Barik Lehiaketako irudia Bediako liburutegian.

Erredakzioa

Bediako liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS) sartu da. Hori dala-eta, erabiltzaileak beste edozein liburutegitako liburuak eskatu ahal izango dabaz eta udal liburutegian jaso. Bediako liburutegia be hasi da beste liburutegi batzuetako eskararak jasoten eta bideratzen.

Eskatutako liburua, normalean, jatorriko liburutegian libre geratzen danetik astebetera jasoten

da liburutegi eskatzailean. Eguaztena izaten da liburuak jasoteko eguna.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea

300 liburutegi publiko baino gehiagok osotuten dabaz Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea. Liburu, CD, DVD, liburu elektronikoa eta abarren dobako maileguaz gainera, EIPSk beste hainbat zerbitzu eskeintzen ditu; irakurketa klubak, ipuin kontalariak eta berbaldiak, esaterako.

BEDIA

Lehenengo Gazteria Plana abiatu dau Bediak

Erredakzioa

Plana 2018-2021 artean egongo da indarrean. Hezkuntza, enple-

gua, sozializazioa, esku-hartze soziala, osasuna eta ongizatea, kultura eta sormena, konpromiso soziala, parte hartzea, gazteen



ARTEA

Kultura ugaritasuna ospatzeko astea

Erredakzioa

Maiatzaren 28tik bagilaren 3ra arteko astean, hainbat ekitaldi egongo dabaz Artean, arteaztar barrien kultura ugariak ezetu eta herritarren artean loturak egiteko. Areatzan be, gaiari lotutako erakusketa bat egongo da *Toki bat munduan* izenekoa. Artean barriz, maiatzaren 28tik bagilaren 7ra arte, *Siriako familia errefuxiatuak inorena ez den lurraldean* izenekoa erakusketea egongo da Kultur Etxean. Dokumentalak, barriketal-

diak, jantzak, musikeak eta janak erakutsiko dabaz dibersidade hori.

Martitzenean, hilak 29, *Almeria, alimentando a Europa gracias a la explotación* dokumentala eskeiniko dabaz Kultur Etxean, 19:00etan. Barikuan, bagilak 1, arteaztar barrien jatorrizko herriak ezetuteko kafe so-lasaldia egongo da 19:00etan, Herriko Bentan.

Domekea, bagilak 3, izango da egun nagusia eta egun osorako ekintzak prestatu dabaz. Holan, 12:30ean, Zeanuriko Etxanderak jantza taldeak euskal jantzak eskeiniko dabaz plazan. Gero, 13:00etan, bermut kontzertua egongo da Herriko Bentan; Afrikako musikea eta jantzak eskeiniko ditu Kawadeni taldeak. Ondoren poteoa pintxo "etnikoakaz", eta eguna amaitzeko antzerkia egongo da. Arrastiko 17:30ean, *Ongi etorri lagun* antzezlan antzetzuko dabaz plazan.

ARRATIA

Andren Jabekuntza Eskolako urteroko topaketea maiatzaren 26an Lemoan



Erredakzioa

Datorren ikasturteari begira zeintzuk diran Arratiako andrak landu gura dabazan gaiak eta ikastaroak ados-

teko, besteak beste, topaketea egongo da maiatzaren 26an, 10:00etatik 13:00etara, Jubilatuaren tabernaren gaineko aretoan. Virginia Imaz, Emakunde Saria jaso dauan pailazoak egongo ditu topaketako "clownklusioak".

Izena maiatzaren 16 baino lehen emon behar da AUMeko Berdintasun Zerbitzuan edo udaletxeetan.

Gorrote delituen gaineko erakusketea Arantzazun

1990ean Osasunaren Mundu Erakundeak, homosexualidadea, buruko gaitzen zerrendatik kendu ebalaz gogoratzeko, maiatzaren 17an Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako eguna aldarrikatzen da. Arratiako Udalen Mankomunitateak adierazpen instituzionala egin dau, "orientazio sexuala eta genero identitatean oinarritutako diskriminazioaren aurkako burrukan daukan konpromisoa" berresteko. Izan be, gorrote delituen artean, orientazio edo identitate sexuala izaten da errazoi nagusia.

Hori dala eta, maiatzaren 24tik 28ra, Aldartek antolatuta, gorrote delituen gaineko erakusketea egongo da Arantzazuko udaletxean. Bertan, Erkidegoan, estatu espainiarrean eta Erdialdeko Amerikan eta Mexikon, sexu orientazio edo genero identitateagaitiko gorrote delituen egoera erakusten da.

IGORRE

Ia mila lagunek emon eben botoa Igorreko Gure Esku Dagoren galdeketa

Erredakzioa

Igorren 3.553 lagunek emon eikien botoa eta 983 boto jaso ziran, %27,56. Horetatik bi baliobakoak. "Euskal estatu bateko herritarra izan gure dozu?" itaunari, 962 herritarrek baietz erantzun eutsien, ezetz 9k eta 10ek boto zuria emon eben.

Eguna goiz hasi zan Gure Esku Dago-ren Igorren Ebatzi taldekoentzat; 07:00retan hain zuzen be, dana prest egoteko jentea botoa emoten hasi orduko. Botoa emoteko jente gehien batu zan momentua eguerdi aldekoa izan zan, kalejirearen ostean. Momentu horretan ilara handia egon zan herri galdeketa parte hartzeako.

Ekitaldian Dimako Gure Esku Dago taldeko Izaskun Barrutieta eta Maite Petralandak Lorea Agirrearen poema bat irakurri eben. Poemearen harira, Areatzako Sara Gutierrezek "poema honek transmitiduten dauzan baloreak eta indarra Gure Esku Dago mobimentuak daukan filosofiaren parekoak dirala" esan eban. Izan be, poeman "bazterretik irten, plazan sartu, lekua hartu, ekin eta egin, eman eta hartu, eta gozatu!" esaten da eta bere ustez hori da herri galdeketea antolatuten danean herritarrek egiten dabena: plazak eta berbea hartu. Ibon Iza



eta Kepa Intxaustiren bertsoak etorri ziran gero eta jantzan egitea gustuko dabena Larrain jantzan parte hartu eben.

Arrastian be, ilarak egon barik, denpora guztian parau barik hurreratu zala jentea azaldu deutso BEGITURI Izaskun Atutxa Igorren

Ebatzi taldekoak. Ez ziran mila bitora heldu, baina hortxe-hortxe ibili ziran. "Etorri eta botoa emon ebenakaz geratuko gara. Pozik eta gustura amaitu genduan eguna, polita eta hunkigarria izan zalako" dino Atutxak.

Egunean zehar, alkatea eta



Eguedian ilara handiak egon ziran botoa emoteko.

zinegotziak, merkatarik, industriko beharginak, ikasleak eta irakasleak, zaharrak eta gazteak hurreratu ziran botoa emoten. Familia osoak be joan ziran, hiru belaunalditako igorretarrak botoa emoten. Edo urrunetik etorritako igorretar barriak. Jatorriz Indiakoak diran batzuk, barbarako. Punjab-ekoak izanda, antza, eurak be estatus politikoa herritarrek ebatzi behar dabelakoan dagoz eta parte hartu eben Igorreko galdeketa.

Maiatzaren 6ko galdeketea

Maiatzaren 6an, ez bakarrik Igorren, Bizkaia, Araba eta Nafarroako beste 21 udalerrian be egin ebezan Gure Esku Dago deitutako galdeketa. Botoa emotera deitutako 92.959 lagunetatik %14,81ek emon eben botoa. Botoa emon ebenen %97,22 euskal estatu independente baten alde agertu ziran.

Parte hartzeari jagokonean, porzentajetan, espero zan moduan herririk handienak euki eban parte hartzerik txikerrena. Portugaletan, 3.389 boto jaso ziran, %8,31. Arakaldon parte hartzea %25,60koa izan zan; Aiaraldean, %16,86koa; Gorbeialdean (Zuia eta Zigoitia) %22,55koa; Txorie-rin, %26,83koa; Enkarterrietan, %20,85koa; Nafarroako Malerrika eta Bertizaranan, %26,38koa, eta Lizarraldean, %15,95koa.

Oin arte 203 herritan egin dira herri galdeketa eta 189.000 lagunek emon dabe euren eretxia botoen bidez.

IGORRE

Igorreko Udalak eta Errota Fundazioak herriko Industrialdea hobetuteko hitzarmen bat sinatu dabe



Iratxe Goikoetxea Errota Fundaziokoak eta Beñat Anzola Igorreko alkatea hitzarmena sinatzen.

Erredakzioa

Igorreko Udalak eta Errota Fundazioak Igorreko Industrialdearen hobekuntza bultzatzeko proiektu bat garatzeko hitzarmena sinatu dabe. Proiektua Bizkaiko Foru Aldundiaren dekretu baten oinarrituta dago, eta industrialdeako partzelen jaubeen arteko alkatea sortzea sustatu gura dau, industrialdea hobetuteko plana garatu eta diru laguntzak jaso ahal izateko. Enpresari alkarte honetan, jaubeen %50a baino gehiago egotea eskatzen da.

Sustapen lana Bizkaiko Foru Aldundiak kontratautako aholkularitza baten bitartez egingo da Igorreko Udalaren eta Errotaren laguntzeagaz. Ekimen hau, Bizkaiko lau industriguneetan bakarrik garatuko da eta horreetako bat Igorrekoa da.

M. Jose zure arropa
94 631 90 08
Agirre Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es
Prest? Tizu Galantara!
www.facecook.com/galanta.lenceria

RUGBY TABERNA
•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburetan pintxo bereziak
arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA • SINTASOLA • PAPEREA
Eskola, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 - 506 854 018

ARKITEKTO TEKNIKOA
Almudena Simarro Armero
664 763 741 - arkitektura@almuartek.com
ZEANURI
BIT (ITE), EEZ (CEE), Erredakzioa PSS,
Obretako segurtasun eta osasun koordinazioa
almuartek.com

ZURE ZERBITZURA
✓ Avia guztira 176 gasolindegil
✓ Avia Adenor 35 gasolindegil
ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA
✓ Operazio-Zentroa
Bilboko Portu Autonomoan



AREATZA MUSIK AND BEER

Garagardo eta musikearen nazinoarteko jaia antolatu dabe Areatzan bagilaren 1 eta 2rako



Areatzako garagardoaren jaia aldatzen doa sortu zanetik; baina beti, bertokoa eta nazinoartekoa lotzeako bokazinoagaz. 2016an, lehenengo Beerllaro edo Garagardo Eguna ospatu zan; 2017an, Blues and Beer izena hartu eban jaialdiak eta hiru egunez blues musikeagaz bete eban herria. Aurten, bluesaz gainera, folk, rhythm & blues eta funk estiloko musikea egongo da Musik and Beer izena hartu dauan nazinoarteko festa honetan.

Erredakzioa

Nazinoarteko musikea, garagardo eta gastronomia dira aurten-go jaialdiaren zutabeak.

The Old Timey String Band (folk), A Contra Blues (blues), The Buttshakers (rhythm & blues), Priscilla Band (funk), Anaut (rhythm & blues), Confluence (blues-country-rock) eta Laurence Jones (blues) izango dira Musik and Beer jaialdian musikea ipiniko daben taldeak. Garagardoari jagokonean, hiru estadubatuarek Hernanin sortutako Basqueland Brewing Project-ek ekoiztutako garagardoak dastatu ahal izango dira. Enpresa honek 15 garagardo desbardin egiten ditu, Arzak, Berasategi eta jatetxe ezagunetan saltzean diranak. Sariak be jaso ditue euren garagardoetako batzuk.

Gastronomian be, musikeari eta garagardoari jagokienean legez, bertoko eta nazinoarteko kalidateko sukaldaritzaren fusinoko produktuak dastatzeko aukerea egongo da, jaialdiaz disfrutau bitartean, indarrak hartzeako. Kaitxo txokolateak; Keia markako ahate produktuak eta ketuak; Eskatza ta mahatsa, Zornotzako Julen Baz sukaldariaren food truck-eko menuak eta Lemoako Sandra Lejarzaren baserriko hanburesak osotuko dabe jaialdiko gastronomia eskeintzea.

Jaialdiaren historia labur eta arrakastatsua

Areatzak beti izan dau musikeagazko lotura handia eta ekitaldi eta musika ziklo ugari egoten dira urtean zehar: Musika bakarrean, Erdu eta musikatu, Folklore Bizian, folk jantza eta jantza tradizional ikastaroak EHUgaz batera eta Zezili Deuna eta San Bartolome egunetako kontzertuak. Horrezaz gainera, Areatzako Musika Bandea sortu eta 34 urte beranduago, bandeak funtzionamentuan jarraitzen dau.

Oin dala urte bi, AGE-Beerllaro Areatzako Garagardozaileen Elkarte sortu zan, garagardoaren

ekoizpen artisaua eta kalidatezko konsumoa bultzatzeko. Eta holan, 2016an, Beerllaro edo Garagardoaren Eguna ospatu zan.

Igaz, Areatzako Tabernarien Elkarteak, Areatzako Udalak, AGE Beerllarok eta Areatzako Kirol Kultur Batzordeak indarrak batu ebezan Blues and Beer Lehenengo Nazinoarteko Jaialdia sortzeako. Herriko eragileen laguntzeagaz, eskola eta Udala moduko instituzinoakaz, ehundaka lagunek disfrutau ahal izan eben jaialdia. Eskola umeentzako berbaldiak dozenaka ikasle bildu ebezan, kale banden nondik norakoak aztertu eta ikasiz. Gastronomiari jagokonean, 1.000 bat lagunek bertako garagardoaren 1.900 kaina dastatu ebezan. Food truck-ak arrakasta itzela izan eban

eta 800 zerbitzu emon ebezan eta sare sozialetako jarraipenak ahalbidetu eban Facebook-en 3.200 bistaratzera heldutea eta Youtubeko bistaratzek 1.500etik gora izatea.

Aurten, musika estiloak ugaritzearen aldeko apustua egin dabe antolatzaileak. Zazpi kontzertu egongo dira bariku eta zapatuan.

Egitaraua

Bagilak 1, barikua

18:00etatik aurrera, Sandra Lejarzaren baserriko hanburesak dastatzeko aukerea plazan.

19:00etan, kaineruen irekierea eta prost!

19:15ean, The Old Timey String Band.

21:00etan, A Contra Blues.

23:00etan, The Buttshakers.

Bagilak 2, zapatua

13:00etatik aurrera, Eskatza ta mahatsa food truck-eko jatekoak eta Sandra Lejarzaren baserriko hanburesak dastatzeko aukerea plazan.

14:00etan, txokolate eta ketutako produktuen maridajea.

17:00etan, Munduko II. Garagardo Kupel Jaurtiketa Lehiaketea.

18:00etan, Confluence.

20:00etan, Anaut.

22:00etan, Laurence Jones.

24:00etan, Priscilla Band.

Martin Muro Areatzako marrazkilariak taldeen irudiak egingo ditu zuzenean eta Laurence Jones artistearen kontzertuaren aurretik, 21:00etan, Areatza Musik & Beer jaialdiko zozketea egingo da.

Laurence Jones

Laurence Jones (Liverpool, 1992) nazinoarteko blues musikako izarra da. Bost disko ditu kalean eta bakotzeko milaka kopia saldu ditu. Hedabide espezializaduetan "blues-aren etorkizuna" deitzean deusie. Lehenengoz joko dau Euskal Herrian.

Laurence Jonesek bere bandeagaz jirak egin ditu Europa osoan eta Estatu Batuetan zehar eta hainbat sari jaso ditu; tartean, 2015ean, European Music Awards gitarrajole onenari saria.

The Buttshakers

Taldeak rhythm and blues, hainbeste maite daben musika soularen esentziaren onenagaz egiten dau. Bost disko ditu kalean. Lehenengoa 2011n kaleratu eben *Headaches & Heartaches* titulupean. Atzena aurten argitaratutako *Sweet Rewards* izenekoa da.

Anaut

Madriko Alberto Anaut musikariak sortu eban talde hau 2013an. Anaut jazz gitarran lizentziau zan Amsterdamgo Konserbatorioan. Taldeak hiru disko ditu eta jaialdi askotan hartu dau parte. Tartean, Donostiako Jazzaldian.

A Contra Blues

Europako bandarik onenen artean dagozala argi ixten dau, 2014an irabazitako European Blues Challenge-k. Bartzelonako kaleetan hasita, Europako jaialdirik onenetan jo dabe. Sei disko ditue kalean.

Priscilla Band

Oin dala hamar urte sortu zan Bilboko Priscilla Band taldea. Funk taldea da eta 9 musikarik osotuten dabe. Energiak betetako, jantzan egiteko musika alaia egiten dabe. Lehenengo diskoa *Olor a Fonk* izenekoa 2010ean argitaratu eben eta 2014an bigarrena, *Xalala Kale*.

The Old Timey String Band

Bere lehenengo lana, *Amerikanoak* Areatzan aurkeztuko dau 1950 hamarkadako estadubatuarek musikea egiten dauan euskal taldeak. Getxo Folk jaialdian jo dabe eta nazinoarteko taldeakaz konpartidu dabe eszenalekua.

Confluence

Jazz, blues eta pop musikariak osotuten dabe Confluence taldea. Areatzan *Volcano* diskoa aurkeztuko dabe. Bertan blues, country, rock eta pop-rock estiloetako kantuak jasoten dira.

UEMA EGUNA DIMAN

"Euskara gure lurra" lelopean egingo dabe Diman UEMA Eguna

Maiatzaren 26an izango da eta Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), Dimako Udalak eta hainbat udal eta eragilek egitaraua, abestia eta bideoklipa prestatu ditue. Egun horretan, UEMAk Batzar Nagusia be egingo dau Diman eta Arantzazu eta Bakio gehituko dira mankomunidadera. Udaleri bi honeekaz, 87 udal izango dira UEMako herriak, 250.000 biztanleko lurgune euskalduna osotuten.

Erredakzioa

Bi urterik behin izaten da Udaleri Euskaldunen Eguna, udal-erri euskaldunak egindako lana festa giroan ikusi arazoteko eta aurrera begira dituen erronkak nabarmentzeko. Dimako Udala eta UEMA alkarlanean eguna antolatzen hasi eta berehala alkatu jakiezan herriko hainbat alkarte, eta baita Arratiako udal gehiago be. Eguna prestatzen ibili diran alkarteak, Abizarie euskera alkarte, Dimesten, Zamakola alkarte, Andraizea, Dimetaleroak, Bertso Eskola edota Dimako Eskolako Guraso Elkarte, izan dira beste batzuen artean; eta Arratiako herriak, Arantzazu, Areatza, Artea eta Igorre. Guztien artean, egitarau oparoa prestatu dabe.

Egun osorako egitaraua da, festa, hausnarketa eta aldarrikapena buztartzeko ekitaldiakaz. Gainera, eguna girotzen hasteko, bezperan, udal-erri euskaldunetako gazteen topaketan parte hartu eben gazteai be harrerea egingo jakie Dimako udaletxean. Izan be, topaketan parte hartu eben gazteak protagonismo berezia izango dabe astegoienean zehar, euren herrietako esperientziak partekatzeko ekimenakaz, eta gazteen- zako prestatutako mintegiagaz.

Ekitaldi instituzionala eta UEMAREN Batzar Nagusia

Euskerearen arnaguneak sendotzeko eta herritarren kontzientzian eragiteko, instituzinoen, eragileen eta herritarren arteko alkarlana bultzatzea izan ohi dala Udal-erri Euskaldunen Egunaren asmoetako bat, hasikeratik, dinoe UEMATik. Horregaitik festa giroko ekitaldiez gainera, ekitaldi instituzionalak be egiten ditue.

Goizean, udal ordezkariak UEMAREN Batzar Nagusia egingo dabe Dimako eskolan, eta eguerdian, ekitaldi instituzionala izango da herriko plazan.

Batzar Nagusian, atzen hila-beteotan UEMAn sartzeako eskaerea egin daben udal barriak onartzea espero da: Arantzazu eta Bakio. Ekitaldi instituzional-lean, udal-erri euskaldunak dau-



Bilboko Kafe Antzokian egin zan UEMA Eguneako aurkezpena.

Abestia eta bideoklipa

Egunaren harira, *Euskara, gure lurra* izeneko abestia be egin dabe. Ibon Izak idatzi dau letrea, eta Kepa Elgoibar musikariak ipini deutso musikea. Dimako eta Arratiako herritarren eta alkarteetako ordezkarien abotsakaz grabau dabe. Abeslariak dira, Olar herri kirol alkarteko Tubi eta Jon Loiola; Abizarie euskera alkartekoak, udaletxeko langileak, eskolako umeak... Irudiak grabau eta honeen edizinoa Joseba Rodriguez-ek egin dauz.

EUSKARA, GURE LURRA

Zazpi itsaso ditut nabigatu
Gau beltzenean bihurtu naiz katu
Berdin gara soka edo zaku
Baina beti zaitut nik maitatu.

Hartu zaitut lurretik tatarrez
Oker-okera eta erdi trabes
Pauso goxo-goxo eta baldarrez
Maite zaitut betiko indarrez.

Euskara zu barik ez gara
Euskara zu barik zer gara?

Ai Euskara, zure taupada
Gure bihotza, nire lurra da.

Ezin gaitzek seklua banandu
Goiz argietan nahi zaitut laztandu
Maitasunez josi eta ilbandu
Berbaz berba nahi zaitut garandu.

Erraietatik zatoz azalera
Barru barrutik erdu kalera
Aire-aire, ale-ale ba
Goazen biok mundu zabalera.

Euskara zu barik ez gara
Euskara zu barik zer gara?
Ai Euskara, zure taupada
Gure bihotza, nire lurra da...

Euskara zu barik ez gara
Euskara zu barik zer gara?
Ai Euskara, zure taupada
Gure bihotza...

Euskara zu barik ez gara
Euskara zu barik zer gara?
Ai Euskara, zure taupada
Gure bihotza, nire lurra da...

kien garrantzia nabarmenduko dabe, eta euskerearen normalizazioari egiten deusien ekarpena be bai. Erakunde publikoetako, euskalgintzako zein beste hainbat

alorretako ordezkariak be izango da ekitaldian.

Festa eta aldarrikapena buztartuz, ondo pasetako eguna izan ohi da Udal-erri Euskaldunen

Eguna, baina lanerako eta hausnarketarako tartea be izaten da egunean zehar. Holan, goizean, hainbat herritako esperientziak konpartidutako aukerea egongo

da, Udal-erri euskaldunak eta euskalgintza izeneko mintegian.

"Euskara gure lurra"

Josu Labaka UEMako lehendakariaren berbetan, maiatzaren 26koa udal-erri euskaldun guztien eguna da, ez UEMako kide diranena bakarrik. "Aspaldi ebatzi zan egun hau udal-erri euskaldun guztion bilgune izatea, UEMako kide izan ala ez. Gaur egun, 175 udal-erri inguru dira Euskal Herriaren luze-zabalean udal-erri euskaldunak. Biztanleriaren %70etik gora euskalduna daukienak".

Udal-erri honek ekarpen handia egiten deusie euskerearen normalizazioari, herri honen arnaguneak dirala esaten da. Eta aurtengo leloa, "Euskara gure lurra", be ildo horretatik doa. "Euskerea dalako herri hau loratu daiten ezinbestekoa dan lurra. Euskerea dalako herri honen sustriak daukien ongarri naturala. Euskara da gure lurra".

Egitaraua

Maiatzak 25, barikua

19:00etan, harrerea, udal-erri euskaldunetako topaketetako gazteai.
20:00etan, pelota desafioa.
22:00etan, Zazkel taldearen kontzertua.
23:30ean, Euskal Karaokea tabernetan.

Maiatzak 26, zapatua

10:00etan, UEMAREN Batzar Nagusia.
10:15ean, mintegia, *Udal-erri euskaldunak eta euskalgintza*.
11:00etan, mintegia, *Gazteak eta euskara, inertziatik kontzientziara*.
11:00etan, umeentzako jolasak.
12:00etan, kalejire, buruhandiakaz, txotxongiloakaz, Jentiltxu eta Jentiligaz.
12:30ean, ekitaldia.
13:15ean, kantujire.
14:45ean, bertso bazkaria, Unai Iturriaga eta Jon Maiagaz.
18:30ean, herri kirolak.
20:00etan, Areatzako batukadea.
22:00etan, Egurra Ta Kitto taldearen kontzertua.
23:00etan, erromeria, Ezten Giro taldeagaz.

FUTBOLA

Arratia Futbol Taldeko udalekuetan izena emon daiteke bagilaren 15era arte**Erredakzioa**

Futbola, mendiko ibilaldiak, herri kirolak, uger egin eta beste ekintza asko egingo ditue umeak Arratia Futbol Taldeko udalekuetan. Sei urtetik gorako neska-mutilentzat dira eta bagilaren 25etik 28ra edo-eta garagarriaren 2tik 6ra izango dira. Astebete edo birako emon daiteke izena. Igorreko Urbietako futbol zelaian izango dira, goizeko 09:30etik 14:00etara. Lehenengo egunean ekipazioa jasoko dabe eta goiz guztietan hamaiketako emongo jakie.

Izena emoteko edo informazio gehiago jasoteko futboludalekuak@cdarratia.com helbidera idatzi edo 617 803 440 telefonora deitu daiteke.



MENDI MARTXEA

Ubideko Bira bagilaren 3an**Erredakzioa**

Ubideko Bira bagilaren 3an izango da. Atzen urteotan legez, ibilbide bakarra izango dau 21,5 kilometrokoa. Partaideak 08:30ean urtengo dira herriko plazatik. Punturik altuena Oketako tontorra (1.031 m.) da.

Ibiltariak, plazatik Kaltzadara joango dira eta handik Saldropora. Baztelarra, Upete, Atxurdin eta Lexarandatik pasau ostean igongo dabe Oketa. Gero Siskiñotik barriro be plazara ibilaldiari amaierara emoteko.

Izena egun berean emon daiteke urten aurretik 07:30etik aurrera, edo aldeztatik ubidekobira.es.tl webgunean. Ibilbidea amaitutakoan partaideak saldea, sagardoa,

txorizoa sagardotan eta gaztaia izango dabe. Ubideko produktuen otzara bat be zozketatuko da.



MARATOI TXIKIA

Ibilbidea partaideen edadeari hobeto egokitzeko aldaketak egongo dira aurten

Bagilaren 3an izango da Arratiako Maratoi Txikia. Edade guztietako lasterkariak hartzean dabe parte proba honetan, edade bakoxtari egokitutako ibilbidea eginda. Oin arte, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailakoak, Dimatik Igorrerara egiten eben, baina aurten Igorren zirkuitu bat egingo dabe.

Erredakzioa

Hainbat zirkuitu egongo dira gazteenentzako. Haur Hezkuntzakoak Igorreko kiroldegi aurretik urtengo dira eta 300 metro egingo ditue, "kiroldegi atletik hasi eta buelta emongo deustie eskoleari" azaldu deustio BEGIRURI Imanol Agirre antolakuntzakoak.

Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako eskolaumeak

urtekerea betiko lekuan izango dabe "Institutuko goiko sarreran eta Arantzazuko bidetik emongo deustie buelta eta sartuko dira Igorreko eskolako patioko helmugara", 700 metro inguruko zirkuituan. Lau, bost eta seigarren mailakoak, Dimatik etorten ziranak, beste zirkuitu bat egingo dabe Igorretik, 1.300 metro inguruko.

Ume gehiagok parte hartzeako egin ditue aldaketa honek. "Di-

matik etorten ziranentzat lar luzea zan, eta jentea atzera botaten zan horregaitik". Honek kiroldegi ondoan jente asko batzea ekarri ahal dau eta izena emoteko denporaz joateko edo aldeztatik saillkapenak.com webgunean egiteko eskatzen deustie antolakuntzak parte hartzailei.

Nagusien ibilbidean aldaketarik ez

Nagusien ibilbidea ez da aldatuko. Betiko moduan Zeanuri eta Igorre arteko 11 kilometroak egingo ditue. Urtekerea Zeanurira izango da 10:15ean baina dorsalak Igorreko kiroldegian jaso behar ditue 08:45etik 09:15era. Igorretik Zeanurira joateko autobusa ipiniko dau antolakuntzak 09:30ean.

2001etik 2005era jaiotakoak, Arteatik Igorrerara ibilbidea egingo dabe, Arteatik 10:30ean urtenda. Arteako plazan emon behar dabe izena eta dorsalak jaso egunean bertan.

Sariak jagokienean, umeetan ez da saillkapenik egingo eta partaide guztientzat egongo da medailea eta kamiseteta. Nagusietan bariz, andrazko eta gizonetan, bakoxtan kategoria bi egongo dira, absolutua eta beterranoak.





ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net




www.alkizabal.net









ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

TXIRRINDULARITZEA

Zuberok etapa bat irabazi eta bosgarren egin eban Titan Desert lasterketan

Erredakzioa


Saharako basamortuan jokatu den Gaes Titan Desert by Garmin proba gogorraren bosgarren etapa irabazi eta bosgarren egin eban txirrindulari lemoaztarrak. Lasterketeak 620 kilometroko ibilbidea dauka 6 etapatan bananduta. Josep Betalu gizonetaren eta Ramona Gabriel andrazkoetan izan ziran irabazleak.

Lasterketea apirilaren 29tik maiatzaren 4ra artean jokatu zan. Zuberok maiatzaren 3ko etapa irabazi eban. Etapeak 94 kilometro izan eban eta 590 metroko desnibela. Merzougatik hasita, Merzougan-en bertan eukan helmuga. Etapa honetan partai-

deak ez eban euki antolakuntzak emondako ibilbiderik eta lau kontroletik pasau behar izan ziran eta hidratetako beste hiru gunetatik, euren intuizioa gidari hartuta. 30. kilometroan, Betaluk, Bouk, Saguesek eta Zuberok osotutako laukotea lasterketa buruan jarri zan eta Zuberok sartu zan lehena helmugan.

Sano karrera ona egin arren, lemoaztarrak aurten ez dala sasoirik onenean sentidu adierazo eban. "Ez da izan nire lasterketarik onena, ezta gehien disfrutau dodana be. Esan leike 7 edizinoetatik gehien sufridu dodana izan dala hau" dino bere Facebook-ean.

Atzenengo etapan bosgarren egin eban, baita sailkapen orokorrean be.



Julen Zubero.

BIZIKLETEA ETA TRAILA

VII. Zeberio XTrem bagilaren 3an izango da

Erredakzioa

Ibilbidea mendi bizikleteagaz egiteko hiru aukera dagoz: XTrem, 43 kilometrokoa; luzea, 31 kilometrokoa eta laburra 12 kilometrokoa. Trail edo mendi lasterketea be egongo da, 12 kilometrokoa. Izena maiatzaren 31ra arte emon daiteke runedia.mundodeportivo.com webgunean, Garribikes dendan, edo Ermitabarrin egunean bertan plaza-rik geratutena bada. BTT probak 09:00etan hasiko dira eta trail edo mendi lasterketea ordu erdi beranduago Ermitabarritik.



TXIRRINDULARITZEA

Muriaseko Alice Maria Arzuffi italiarrak irabazi eban Emakumeen I. Klasikoa

Erredakzioa

Bizkaia-Durango Euskadi Murias taldeko Alice Maria Arzuffi txirrindulari italiarrak irabazi eban Emakumeen I. Klasikoa eta Irene Usabiagak (Eustrak-Euskadi) eta Sara Martinek (Sopela Women Team) osotu eban podiuma. Bizkaiko txapela Enara Lopezek (Sopela Women Team) eskuratu eban. Proba nagusian parte hartzeako, 10 taldetako 37 txirrindularik emonda eukien izena. Horreetatik 7 bizkaitarrak

ziran. Hamabostek amaitu eban proba 90 kilometro eginda.

Zeberio, Ugao-Miraballes, Arrigorriaga, Artea eta Areatzatik pasau



Txirrindulariak urtekeran Ertzaintzaren zain.

TXIRRINDULARITZEA

Espainiako txirrindularitza egokitutako Kopan, podium bi egin eban Oskar Garrok

Erredakzioa

Jausi egin zan arren, bigarren sartu zan helmugan, apirilaren Tomelloson izandako (Ciudad Real) Espainiako Kopako lehenengo lasterketan. Txirrindulariak 55 kilometro egin behar izan eban nahiko zirkuitu lauan. Hurrengo egunean, minez urten zan igorretarra erlojupekoa egiten eta hala eta guzti be, podiuma egitea lortu eban, hirugarren postua eginda. Hurrengo astean Murtzian jokatu ziran Kopako lasterketak baina Garrok ezin izan eban parte hartu minduta jarraituten ebalako.

Munduko Kopa

Maiatzean, Belgikan jokatu dan

Munduko Kopako lasterketetan hartu dau parte Oskar Garrok. Sensazio gazi-gozoak izan dituala dino, ze egin dauan posturik onena 15. izan da eta aurrerago geratzea espero eban. Maiatzaren 6an izan zan hori, 64 kilometroko lasterketan. "Munduko onenak dagoz eta abiadura oso handia zan. Lan gehiago egin beharko dot hurrengo Kopan aurrerago egoteko" dino txirrindulariak.

Egun bi lehenago, erlojupekoan 24. egin eban.

Igorretarraren hurrengo erronkak dira Espainiako Kopako lasterketea Kantabrian maiatzaren 20an; eta 25, 26 eta 27an Euskadiko Selektzioagaz Espainiako Txapelketea Burgosen.

FUTBOLA

LemoaHarrobi futbol taldeak mailaz igotea lortu dau

Erredakzioa

LemoaHarrobi Futbol Klubak Lurraldekoa Lehenengo Mailan jokatuko dau datorren denporaldian. LemoaHarrobik atzen partidu biak irabazi eta gero, San Antonio 0 LemoaHarrobi 2, maiatzaren 6an jokatutakoa, eta LemoaHarrobi 5 Fruiz 0, maiatzaren 13an jokatutakoa, 68 puntu lortu dauz eta bigarren postuan amaitu dau ligea. Maila berean dagoan Arratia B taldeak seigarren postuan amaitu dau 47 puntugaz.

Arratia A osteraligea amaituteko partidu bi falta diranean bosgarren dago sailkapenean 51 puntugaz. Datorren partidua Elorrioren kontra jokatuko dabe hilaren 19an 16:00etan etxetik kanpo.

Andrazkoak Kopan

Arratia A taldea Kopea jokatzen dabil. Hilaren 12an Igoeren jokatutako partiduan 6 eta 2 irabazi eutsan Aurrera de Vitoriani. Datorren partidua San Ignacioren kontra jokatuko dabe hilaren 20an 12:00etan etxetik kanpo.

ziran txirrindulariak eta Elizondon amaitu eban, aldats gogor bat igon ostean.

Maiatzaren 12an jokatu zan Emakumeen I. Klasikoa eta sano zorte txarra euki eban estreinaldiko honetan. Izan be, lehenengo probako Kadete mailako txirrindulariak urtekeran 40 minutuz egon behar izan ziran Ertzaintzaren zain euripean. Arrigorriagan sute bat egon zan, Ertzaintza ez zan ailegetan eta lasterketea ezin izan eban hasi.

Junior, 23 azpikoak eta Elite mailakoak be berandu urten ziran.

Kadeteak kaltetuenak

Kadeteak izan ziran atzerapenagaitik kaltetuenak. Izena 45ek emon eban eta helmugara 33 heldu ziran 40 kilometroko ibilbidea egin eta gero.

Eguraldiak ez eban lagundu eta kaminoak laban egiten eban. "Txirrindularitza lasterketeari hasikerea emon eutsien blai eginda eta beroketa galduta. Kadete asko laban egin eta errepidearen munan gelditu ziran. Bizikletatik jausi ziran asko eta erretirau be egin behar izan ziran batzuk. Medikuek lan eta lan ibili ziran" azaldu deutso BEGITURI Amaia Estiballes lasterketako zuzendariak.

CAF Turnkey Engineering taldeko Jimena de Roa izan zan irabazlea eta Sandra Gutierrezek eta Maddi Arizmendik egin eban bigarren eta hirugarren, hurrengo hurrengo. Seguros Bilbao Ortasako Irantzu Solaguren jantzi eban Bizkaiko txapela.

Juniorretan barriz, CAFeko Amaia Lartitegik lasterketeaz gainera Bizkaiko txapela be irabazi eban. Luisa Ibarrolak eta Andere Basterrak osotu eban podiuma. Lasterketa honetan 22 txirrindulari emon eban izena eta 14k amaitu eban karrera 63 kilometro egin eta gero. Elite eta 23 urte azpikoak batera urten ziran.

ERAKUSKETEAK

Sergio Saezen akuarelak dirudien argazki erakusketea Igorreko Kultur Etxean**Erredakzioa**

Bagilaren 1era arte, Sergio Saezen irudiak egongo dira ikusgai Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Gelan, *Itzalitako kandela baten argia* izeneko erakusketan.

Eguneroko objektuak lausotuta agertzen dira akuarela itxurea hartzean dabezan Saezen argazkietan, esangura barri bat, poetiko eta filosofikoa agertuz. Argazkilariak, itzalitako kandela baten argipean ikusitako bodegoiak dakar. "Bat-batean argia itzaltzen da eta lo-kuluxkari atea zabaltzen deuto, zerumuga oroitzen den hari mehe baten muga dan horretan, objektu eta keinuak burura

datoz barriz; bizia urtzen hasten da, argazki bat da, itzal bat ondoren, azkenik akuarela bat hurrengo hurrengo, eta amesetan bila hasten zara behin betiko, zein objektu ete zan lehen, zer aldatu ete jakon oin kolore hori izan dagian, inoz ikusi ez dozun landare baten zuztarra, itsas hondorearen arnasa".



DOKUMENTALA

Kurdistango Rojava erakusten dauan filma Igorren**Erredakzioa**

Maiatzaren 17an, arrastiko 19:30ean, Udak antolatuta, Igorreko Kultur Etxean *Suargi, 4 euskaldunen esperientzia Rojavan* dokumentala proiektatuko dabe.

Dokumental honetan Ongi Etorri Errefuxiatuak Durango-ko kide bik eta beste lagun bik 2016an Kobanera egindako biatzea kontatzen da. Igorreko Udak, Kobaneko andren etxea barriztuteko diru la-

guntzea emon dau eta Siriako Kurdistanen dagoan herri horren lau euskaldunen ikuspegia ezetuteko aukerea emongo dau proiektazio honen bidez. Dokumentala Xabier Ortiz de Urbinak zuzendutakoa da eta Durangoko Azokan aurkeztu zan 2017an.



BERTSOLARITZEA

Jon Maia eta Aitor Mendiluze Zeanurin**Erredakzioa**

Zeanuriko Kultur Batzordeak eta Bertso Eskoleak bertso afaria antolatu dabe maiatzaren 19rako. Jon Maia eta Aitor Mendiluzek ipiniko dabez bertsoak eta izena hilaren 17ra arte emon daiteke Jubiladuen tabernan.

Jon Maia (Urretxu, 1972) Euskal

Herriko Bertsolari Txapelketako finalera 4 aldiz heldu da 1997, 2001, 2005 eta 2009an. Bertso tramea izeneko ikuskizuna sortu ebenetakoa izan zan. Musika talde askorentzat idatzi izan ditu abestien letrak. Liburuak be idatzi ditu, akaso ezagunena, *Berriak jaiotzen ginen*.

Aitor Mendiluze (Hernani, 1975) bost aldiz egon da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, 2001, 2005, 2009, 2013 eta 2017an. Ingeniaritza ikasketak egin eta Gizarite Heziketan diplomadua da. Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen langilea. Prensan kolaborazioak eta musika taldeentzat letrak egin ditu.

KONTZERTUA

**Joaquín Sabina eta Joan Manuel Serraten kantuak batzean dituan kontzertua Arteako Kultur Etxean****Erredakzioa**

Maiatzaren 18an, Iñaki Salvadorrek eta Luis Mari Moreno "Pirata"k *SabinaSerrateando* deitu izan daben musika ikuskizuna eskeiniko dabe 20:30ean Arteako

Kultur Etxean. Kontzertuan, Salvadorren eta Pirataren ikuspuntutik egindako Joaquín Sabina eta Joan Manuel Serraten kantuen bersinoak entzun ahal izango dira, kantari bi honeen omenez.

Ibilbide handiko musikariak dira

Salvador eta Pirata. Iñaki Salvador piano irakaslea da Musikenen eta jazz eta musika modernoko eskolak emon ditu izen handiko eskolatan. Artista ezagunenak egin ditu kolaborazioak. Euskal kantariak jagokienean, Mikel Laboa eta Imanolegaz kolaborau eban eta Mikel Markez-egaz be koloretan dau. Baita Espainiako jazz musikari ezagunenak, Perico Sambeat, Pedro Iturralde, Javier Colina, David Xirgu, David Gómez, Mario Rossy, Jorge Rossy, Raynald Colom, Mikel Andueza, Gonzalo Tejada eta Joaquín Chacónegaz eta nazinoarteko mailan, Allan Skidmore, Jean Toussaint, Jesse Davis, Charles Tollive eta Alvin Queen-egaz, beste batzuen artean. Sariak be jaso ditu, Tete Montoliu I. Saria, tartean, eta zine, antzerki eta telebistarako musika be egiten dau.

Luis Mari Moreno "Piratak" parte hartu edo kolaborau egin dau hainbat taldegaz. Trogloditas, Barricada, Despistaos, Orquesta Mondragón, Marea, Pirritx eta Porrotx, Blues Thorpes, César Cuenca (Celtas Cortos taldekoa izandako), Académica Palanca, Los Incansables Txarangea, Jexumai & Noizbehinka, Trío 4... Oin Andreu Buenafuenteren Late Motiv saioko bandan jotzen dau.

Musika irakasle be izan da hainbat musika eskolatan.

BERTSOLARITZEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako saioa Areatzan**Erredakzioa**

Maiatzaren 19an, 17:30ean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udabarriko saioa jokatu da Areatzako Udal Aretoan. Han, Ander Ucelay, Asier Alcedo, Garikoitz Sarriugarte, Markel Baroja, Naroa Torralba eta Xabier Iturraspe hurrengo faserako txartela lortzean saiatuko dira.

Bizkaiko Bertsolari Txapelke-

tak fase bi ditu: udabarrikoa eta udagoienekoa. Udabarrikoan, 78 bertsolarik hartuko dabe parte eta puntuazioaren arabera sailkatuko dira Udagoieneko faserako. Udabarrikoa apirilaren 4an hasi zan eta maiatzaren 26ra arte luzatuko da. Guztira 13 saio izango dira eta Areatzako hamaikagarrena da.

Illart Gumuzio eta Iñaki Iturriotz Illart Gumuzio eta Iñaki Iturriotz

igorretarrak parte hartzean dabil Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. Gumuzio, apirilaren 28an neurtu zan Ondarroan, Txaber Altube, Inazio Vidal, Lander Ibarluzea, Iker Apraiz eta Aitor Arizubietagaz. Bosgarren egin eban 153 puntu-gaz eta 35.a da sailkapen orokorrean

Iñaki Iturriotzek barriz, Getxon kantau eban maiatzaren 13ko arrastiko saioan. Beñat Romero, Eneko Abasolo, Garazi Navarro, Jone Larrinaga eta Mikel Galartza izan eban aurkari eta bigarren egin eban 163 puntu-gaz. Sailkapen orokorrean 19. postuan dago.

Antolatzailea: Babesleak: Legenburua:

AREATZA
UDALETXEKO ARETO NAGUSIA
MAIATZAK 19
17:30

bbt18
Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2018

Ander Ucelay Aristi
Asier Alcedo Cano
Garikoitz Sarriugarte Onaindia
Markel Baroja Laita
Naroa Torralba Rodriguez
Xabier Iturraspe Gandiaga.

LEHIAKETE

Oskar Azkonak irabazi dau VII. Narrazino Lehiaketea

Erredakzioa

Lehenengo saria Oskar Azkona Garciaen *Iparalde urruneko hartzei buruz* narrazioarentzat izan da; bigarrena, Imanol Marcaida Gorostiak jaso dau *Zergatik ez narrazi-noagaitik* eta hirugarrena, Gotzon Plaza Jaiok irabazi dau *Amodioaz la-*

nagaitik. Lemoako lehenengo saria, barriz, Beñat Susaeta Astondoarentzat izan da. *Izarren hautsa* izeneko narrazioa aurkeztu eban Susaetak. Lemoaztarrak Itxaro Bordaren esku-tik jaso eban saria maiatzaren 9an.



Beñat Susaeta.

KIÑU GAZTETXEA

Pablo Hasel Kiñu Gaztetxean

Erredakzioa

Arratiako Amnistiaren Oihartzuna, Amnistiaren aldeko eta errepre-sinoaren kontrako mobimentuak antolatuta, maiatzaren 25ean, 20:30ean, Igorreko Kiñu Gazte-txean, *Errepresioa, kartzela eta an-*

tifaxismoa izeneko mahai-ingurua egongo da. Bertan, Jon Iurrebaso preso egondakoak, Pablo Hasel raperoak eta Carlos Fernandez Salhaketako kideak hartuko dabe parte. Ondoren, 22:30ean, Pablo Haselek kontzertua eskeiniko dau. Pablo Hasel rap abeslaria urte bi eta egun bateko espetxe zigorrera kondenau eban martian Auzitegi Nazionalak Mozal Legea aplikauz, bere twitter kontuan "terrorismoa goraipatzeagaitik".

Izaroren kontzertua

Bagilaren 2an 21:00etan, barriz, Izaro abeslari mallabiztarrak kontzertua emongo dau Kiñun. Sarre-rak Axular Herriko Tabernan, Gau Loran, Txaparron eta Kukuman erosi leitekez 8 euroan. Arratian aurten emongo dauan bigarren kontzertua da hau; izan be, Lemoako jaialdi akustikoan egon zan maiatzaren 12an.



REGUEIBERTSO

Regueibertso ekimena hirugarren urtez

Illart Gumuzio

Maiatzaren 1a zan, goizeko 08:30ak, eta institutuko bus gela-lakuan logurea eta ilusino arpegiak batu ziran Santiago de Compostelarentzat abiatzeko. Bijaean zehar lo egin, musikea entzun, bazkaltzeko geratu eta zenbat-gura abestu ondoren, 16:00ak aldera heldu ziran aterpetxera. Bertan maletak itxi, eta afaldu eta lo egitera joan aurretik, urtik lasai-lasai buelta bat emoteko aprobetxau eben.

Maiatzaren 2a urduritasun apur bategaz hasi eben, goraino beteta egoan Auditorio de Galician (1.000 lagun), ekitaldia eukien eta. Bertan, pandereteirak, gaiteroak, Cabo Verdeko abeslariak, Kataluniako glosadoreak, Galizako regueifeiroak eta Arratiako bertsolari gazteak saio itzela eskeini eben. Arrastian ostera, galegoen hizkuntza, kultura, ohi-turak... sustatu eta zabaltzeko lan egiten dauan Gentalha do Pichel izeneko alkarteak ezagutzeaz gainera, Rosalia de Castro eta Castelao-ren hilobiak bisitatu ebezan Museo do Pobo Galegon.

Maiatzaren 3an, autobusa hartu eta Zas udalerrira abiatu ziran. Han, Torres de Allo jauregian, alkatearen ondoetoria jaso eta bisita gidatua eta ginkanea egiteko aukerea izan eben. Handik, Costa da Morte ko Laxe ko hondartzara abiatu ziran, ondoren, Baioko institutuan (alkartrukean parte hartzean dauan zentroetako bat) jan, eta bazkalondoa galizar, katalu-niar eta euskal doinu eta jantzakaz arindu eben. Eguna amaitzeko, Santiagora itzuli eta gaubean Gentalha do Pichel alkartean *foliada* (bertso saio) bat eginda agurtu ziran.

Regueifeiroak, Sustrai Colina, Arratiako Musika Eskolako trikitilari taldea... Ekitaldiaren ostean, talo jana egongo da Kultur Etxeko plazan.

Maiatzak 18, barikua

19:00etan, *Sitio distinto* dokumentalaren proiektzioa. Ostean, Davide Cabaleiro zuzendariagaz berbal-dia. Igorreko Lasarte Aretoan.

Maiatzak 19, zapatua

11:30ean, Arratiako Lehen Reguei-fa Txapelketea Areatzako plazan. Parte hartzaileak: Baio, Burela eta Vila de Cruceseko regueifeiroak. Aurkezlea: Maite Berriozabal. Itzul-tzailea: Txerra Rodriguez.

Eguerdiaren Correbars poteoa glosadors eta bertsolariakaz eta arrastian Bizkaiko Bertso Txapelketako saioa.

Ekintza publikooz aparte, Galizako gazteak Arratian egon bitar-tean, institutuan ekitaldia, orienting eta bestelako ekintzakaz gozatzeko aukerea izango dabe.



Arratiarrak Santiagon.

DUNBA

Lekitto 2018

Inazio Zubizarretako ikasleak

Zazpi zortzi bederatzi maiatzean goxo Lekitton egon gara eroso-eroso batzuk bihurri eta besteak drogoso Euskal Herria beti polita da oso.

Mendian egon gara ai ze parajea Karraspio inguruan ura eta harea

arraunean ahalegin egiten taldea zoragarria dugu gure kostaldea.

Bertan eman ziguten sarritan laguntza goratuz gure herria paisaia, hizkuntza ondo ulertu genuen guztiaren funtsa bihotzean daukagu gordeta Isuntza!!

Gauetz ibili gara kantuan bertsotan kontu kontari ere momentu askotan gelarik gela sarri ligatu asmotan eta irakasleak beti zeuden lotan.

Ondo ibili ginen Lekitton benetan hondarrean jolasten bustita uretan karramarroak hartzen Leako errekan bidaia daramagu gure bihotzetan.



AGENDEA

MAIATZAK 16

BEDIA

17:30ean, Onditz Mendizabalen eskutik, liburu-maleta ibiltaria 3 eta 11 urte bitarteko umeentzat liburutegian.

DIMA

17:30etik aurrera, mitologia asteko lehiaketetara aurkeztutako lanen erakusketea; 18:00etan, Ines Bengoa ipuin kontalaria, *Sorginak eta monstroak* eskolako kameran. Ondoren lehiaketetako sari banaketeta.

IGORRE

Bagilaren 1era arte, Sergio Saezen erakusketea.

LEMOA

Hilaren 25era arte, Euskal Jairako txartelak udaletxean salgai.

ZEANURI

Bagilaren 30era arte, pisu eta etxeetako balkoietan dagozan lora txapelketarako izen emotea udaletxean.

MAIATZAK 17

AREATZA

18:00etan, euskera erabilteko motibazio tailerra. UEMAK eta Areatzako Udalak antolatuta. Udal Aretoan.

DIMA

19:00etan, Juan Manuel Etxebarriaren berbaldia *Arratiako ipuin mitologikoak*. Jubiladuenean.

IGORRE

18:00etan, Regueiberto. Ekitaldi nagusia eta talo jana Kultur Etxean. Ikusi egitaraua 13. orrialdean.

19:30ean, *Suargi* film dokumentalaren proiektzioa Kultur Etxean.

LEMOA

19:30ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua eleizan.

ZEANURI

Hilaren 19ko bertso afairako izena emoteko azken eguna Jubiladuen tabernan.

MAIATZAK 18

AREATZA

19:30ean, Arratia kantuz plazan.

ARTEA

18:30ean, aitiba eta amamaren sasoiko olgetak jubiladuen eskutik plazan.

20:30ean, Iñaki Salvador eta Pirataren *SabinaSerrateando* kontzertua Kultur Etxean.

DIMA

Iluntzean, jentilen agerrera plaza inguruan.

IGORRE

18:30ean, Errugbi tabernaren inguruan GEDko mahaia, eta 20:30ean Herriko Tabernaren kanpokaldean. Zapiak, bagilaren 10eko Giza Katea dala eta autobuserako txartelak eta kamisetak salgai.

19:00etan, Regueiberto. *Sitio distinto* dokumentala Lasarte Aretoan eta ostean Davide Cabaleiro zuzendariagaz berbaldia.

MAIATZAK 19

AREATZA

11:30ean, Arratiako Lehen Regueifa Txapelketa Areatzako plazan. Parte hartzaileak: Baio, Burela eta Vila de Cruceseko regueifeiroak. Aurkezlea: Maite Berriozabal. Itzultzailea: Txerra Rodriguez; Eguerdián Correbars poteoa glosadors eta

bertsolariakaz; 17:30ean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako saioa Udal Aretoan.

BEDIA

10:30ean, urtekerea txorien kutxa-habien jarraipena egiteko. Plazan.

DIMA

Jentilak Diman. 22:00etan, *Sugoi* ikuskizuna pelotalekuan.

IGORRE

20:00etan, Zu bai Zu finalurrea Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, umeen urtekerea. Montañón (319 m.).

10:00etan, BFAK antolatuta, Bizkaiko Eskolarteto XXXVII. Jokoak. Saskibaloia. Kiroldegian.

ZEANURI

09:20an, Gorbeia Jubiladuen eta pensionisten alkarteak antolatuta, mendi ibilaldia. Plazan. Ipiña-Uguzpe urjauzia-Santa Ageda-Ipiña.

21:30ean, Kultur Batzordeak eta Zeanuriko Bertso Eskoleak antolatuta, bertso afaria. Bertsolariak: Aitor Mendiluze eta Jon Maia.

Aktore eta txotxongilo ikuskizuna
Igorreko Lasarte Aretoan

Didau Antzerki Faktoriak *Beldartxo jatuna* lana taularatuko dau maiatzaren 25ean, arrastiko 17:30ean Lasarte Aretoan.

Ainhua Agirre eta Juanma Alvarez aktoreak, txotxongilo, musika eta aktore lanaren bidez, beldar txiki baten bizitza prozesuaren istorioa kontatuko dabe. Arrautzatik urtendako beldar txikia astelehenetik domekara zelan bihurtzen dan mitxilotoi ikusiko dau publikoak. Beti be, antzerkiaren magiagaz.

Ikuskizun hau doban eukiko dabe Igorreko Kultur Etxeko bazkideak.

MAIATZAK 20

AREATZA

09:00etan, urtekerea eleiz portaletik. Lamino Kirol Klubak Guraso Elkartegaz batera antolatuta, La Arena hondartzatik Punta Lucerora.

IGORRE

17:00etan, zinea *Leo da Vinci: Mona Lisa misioa*; 19:30ean, *El viaje de sus vidas* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea. Eretza (887 m.)-Pico La Cruz (803 m.)-Ganeran (823 m.).

10:00etan, BFAK antolatuta, Bizkaiko Eskolarteto XXXVII. Jokoak. Karate. Kiroldegian.

MAIATZAK 23

IGORRE

17:30etik 19:30era, Zulaibar Lanbide Ikastegiak antolatuta, Lanbide Heziketako orientazio jardunaldiak Kultur Etxean.

MAIATZAK 24

ARANTZAZU

Hilaren 28ra arte, gorroto delituen gaineko argazki erakusketea udaletxean.

MAIATZAK 25

DIMA

UEMA Eguna ikusi egitaraua 9. orrialdean.

IGORRE

10:00etatik 15:00etara, Beharbidetako Orientazio saioa Kultur Etxean.

20:30ean, *Errepresinoa, kartzela eta antifaxismoa* mahai-ingurua. Jon Lurrebaso, Pablo Hasel eta Carlos Fernandez; 22:30ean Pablo Haselen kontzertua Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

Euskal Jairako txartelak erosteko atzen eguna. Udaletxean.

16:30ean, Udalak antolatuta, *Kalea hartuz: betiko jolasak euskaraz abestu* eskolako patioan.

MAIATZAK 26

AREATZA

Urtekerea Lamino Kirol Klubak Parketxeagaz antolatuta. Superlegor eta Aizkorrigan (1.099 m.).

ARTEA

Jubiladuak antolatutako ibilaldia, herritar guztiai zabaldua, Bertizera.

DIMA

UEMA Eguna ikusi egitaraua 9. orrialdean.

IGORRE

20:00etan, Zu bai Zu finalurrea Lasarte Aretoan.

LEMOA

Larrabeitiko jaiak. 10:00etan, txupina; 11:00etan, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketea ume zein nagusientzat; 15:00etan, auzo bazkaria; 17:00etan, zunba tailerra, 17:30ean, Mus eta Briska txapelketak; 19:00etan, meriendea.

10:00etatik 13:00etara, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako topaketea. Balorazioa eta hurrengo ikasturterako proposamenak Jubiladuen tabernaren goiko aretoan.

MAIATZAK 27

ARTEA

13:30ean, Bermut kontzertua, Gato mojado Blues Band Herriko Bentan.

IGORRE

17:00etan, zinea *Un pliegue en el tiempo*; 19:30ean, *Un sol interior* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea Iparla (1.049m.)-Buztanzelai/Lauordena (1.026 m.).

12:00etan, Andren Osasunaren aldeko milia herrikoia Karbie Gaztetxearen parean.

MAIATZAK 28

ARTEA

Bagilaren 7ra arte, *Siriako familia errefuxiatuak inorena ez den lurraldean* erakusketea.

BEDIA

16:30etik 19:30era, bagilaren 8ra arte, Jubiladuen bazkarian izena emoteko epea liburutegian.

MAIATZAK 29

ARTEA

19:00etan, *Almeria, alimentando a Europa gracias a la explotación* dokumentala Kultur Etxean.

BAGILAK 1

AREATZA

Musik and Beer jaialdia. 18:00etan, Sandra Lejarzaren baserriko hanburgesak plazan; 19:00etan, kaineruen irekiera eta prosti; 19:15ean, The Old Timey String Band; 21:00etan, A Contra Blues; 23:00etan, The Buttshakers.

ARTEA

19:00etan, kafe solasaldia *Mundutik Arteara* Herriko Bentan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

AUTOA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasauta, errobera barriak, narruzko jesarlekuak, mantenimentu guztia egunean eroandakoa, garajejan aparkautakoa eta atoi boleagaz. Telefonoa 688 602 516.

DANERIK

LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632 159 270 telefonora.

JATETXEA ALOKAIURAN

Urbide jatetxea alokatzen da Ubiden. Errendimentu osoan, eta erabat horniduta. 50 lagunentzako lekua. Interesdunak deitu 609 384 700 edo 679 112 216 telefonora.

ZERBITZARIA BEHAR DA

Igorreko Axular Herriko Tabernan

zerbitzaria behar da astegoienerarako. Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu edo bertan emon izena.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Bizkaiko Bertsozale Elkartek emondako bina sarrera Areatzako BBT18ko kanporaketarako.

Iratxe Gondra (Igorre)
Karme Beobide (Zeanuri)



2 Arratiako Udalen Mankomunitateak emondako Arratiako Dantza-Koplak liburua.


Abel Ariznabarreta (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Konsonantea. Maila.
- 2.- Errutenioa. Trebe. 3.- Ezetza.
- 4.- Eskopeta. Letra mutua. 5.- Emea ez dana. Letra bat. Begiak itxita.
- 6.- Azken letrea. Koskor. 7.- Makilari.
- 8.- Frutu bat. Atadian, kanpoan.
- 9.- Agindua. Uranioa.

GOITIK BEHERA

- 1.- Burlaka. Suagaz batera.
- 2.- Burdiaren kulunka. Biluzia.
- 3.- Letra bat. Arsenikoa. Lohidura.
- 4.- Ontzigile. 5.- Gizonezkoen izena. Birritan, korotza. Bokala.
- 6.- Matematikan, sinuaren sinboloa. Lilia. 7.- Jainkoa, hizkuntza semitikoetan. Beilegitu.




Topau kotxeen zazpi etxeren izenak.

S	A	L	T	O	N	I	K	O	W
O	H	I	D	R	A	B	U	R	I
M	I	O	R	E	Z	O	J	A	N
O	T	A	N	G	E	R	A	M	K
L	O	N	I	D	A	Z	G	A	O
G	E	P	A	R	A	I	U	R	T
E	G	A	B	U	N	D	A	R	E
S	U	K	E	R	I	R	R	A	N
M	E	I	R	A	R	R	E	F	U
A	P	E	L	U	Z	T	X	I	O
U	M	E	R	C	E	D	E	S	H
D	O	F	U	R	A	K	R	I	N
O	M	E	O	J	U	L	I	N	A
R	U	Z	O	R	E	B	I	K	O
S	E	E	T	X	D	M	O	L	P

AKIMIKO

Kailoren



umaan moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Carre. 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GAV & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 61 25

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendizola, s/n. 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel. 609 480 839 Faxa 609 266 717

CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
 LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK
Aurrematrikula
 ekainaren 4tik 15era
Matrikula
 uztailaren 12tik 18ra

ESKAINTZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINTZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile/langabetuentzat ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | @fpzornotza

Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

URTE BATETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

INFORMAZIOA:
 Epea: maiatzean
 - Infante kalea, 2. ARTEA
 Astelehen, asteazken eta ostiralak
 10:00etatik - 13:00 arte
 Telefonoa: 94 631 73 52
 arratia.musikaeskola@gmail.com
 - Matrikula ONLINE

**- Matrikulazioa ONLINE:
 www.arratiakomusikaeskola.eu**